

# KIWIA KAFEAREKIN ETA INTXAURREKIN

## OSAGAIAK

**(4 pertsonarentzat)**

**4 kiwi**
**50 gr intxaur zatitu**
**100 gr azukre**
**1 koilarakada kafe disolbagarri**
**1 kopa cava (125 ml)**

## ELABORAZIOA

Kiwia zuritu, eta kubo handitan moztuko dugu. Cavan marinatzen utziko ditugu 6 orduz. Denbora hori pasatzen denean, xukatuko ditugu.

50 gr azukre cavan irakingo dugu 10 minutuz.

Azukreari intxaurrak gehituko dizkiogu suan, eta etengabe mugituko dugu guztia, karamelizatu arte. Sutik kendu, eta kafe disolbagarria gehituko dugu. Hozten utziko dugu, eta gerorako gordeko dugu.

Platerean kiwi-kuboak jarriko ditugu eta cava-saltsa botako diegu gainetik. Amaitzeko, intxaur karamelizatuak jarriko ditugu gainean.

| PREZIOA | DENBORA | ZAILTASUNA | OSASUNGARRIA |
|---|---|---|---|
| TXIKIA | 35’ | 3/10 | 10/10 |